"*Kalean jokatu egiten dugu aldarrikatu [vindicar] aditza*" izan zen 70eko urteetako mugimendu feministaren goiburuetako bat. **Vindicación**ek pertsonala eta politikoa denaren, intsumisio zibilaren eta militantzia politikoaren miaketa da, baita femenino denarena eta feminismoarena ere. **Vindicación** XX. mendeko azken urteotako emakumeen historia politikoari emandako begiratu pertsonala da.

"*En la calle se conjuga el verbo vindicar*" fue una de las consignas del movimiento feminista de los años 70. **Vindicación** explora sobre lo personal y lo político, la insumisión civil y la militancia política, sobre lo femenino y lo feminista. **Vindicación** es una mirada personal a la historia política de las mujeres de los últimos años del siglo XX.

• **16:30**



**Bába** (2008). Zuzana Špidlová. Txekiar Errepublika. 21 min.

*"Amak inoiz ez dit galdetu. Berak beti ekarri zuen amona etxera. Orain, berriz, nire logelaren erdian lo egiten du, eta nik zaindu behar dut. Denbora osoan".*

*"Mamá nunca me ha preguntado. Ella simplemente trajo a la abuela a casa. Ahora duerme en medio de mi habitación y yo tengo que cuidar de ella. Todo el tiempo".*

## *Hirugarren adina hirugarren munduan*
## *Tercera edad en el tercer mundo*



**LOLA** (2009). Brillante Mendoza. Frantzia-Filipinak. 110 min.

Lola ("amona" tagaloz) Separen biloba erail dute bere mugikorra lapurtzeko. Ezbeharra jasan arren, bere onera etorri behar da berriz, eta hileta prestatzen hasi haizeak eta euriak erasandako Manilan. Lola Puring biloba espetxetik ateratzen saiatzen da, bertan baitago epaiketaren zain Lola Separen biloba erailtzeaz leporatuta.

El nieto de Lola ("abuela" en tagalo) Sepa ha sido asesinado para robarle el móvil. Pese a la tragedia que ha sufrido, debe sobreponerse y comenzar los preparativos del funeral en una Manila azotada por el viento y la lluvia. Lola Puring intenta que su nieto salga de la cárcel, donde está a la espera de juicio acusado de haber asesinado al nieto de Lola Sepa.

**• 19:00**



**Diploma** (2009). Yaell Kayam. Israel. 20 min.

Hebrongo gau bat. Israelgo kolonoak Pourim festa ospatzen ari dira. Bitartean, hamabost urteko Samir-ek bere arreba zahar Ayati lagundu nahi dio unibertsitateko bere diploma hartzera.

Una noche en Hebrón. Los colonos israelitas celebran la fiesta de Pourim. Mientras, Samir, de quince años, insiste en acompañar a su hermana mayor, Ayat, a recoger su diploma de la universidad.

***Israelen finkapenak Palestinako lurralde okupatuetan / Asentamientos israelíes en territorios ocupados de Palestina***



**BIL'IN, MY LOVE / BIL'IN HABIBTI** (2006). Shai Carmeli Pollak. Israel. 84 min.

Bere lurraldea salbatzen ahalegintzen den Palestinako herri txiki baten historia da hau, eta indarkeriarik gabe Israelgo armadari aurre egiten dio. Segurtasun-arrazoien aitzakian, Bil'inek bere lurraldeen zati handi bat galduko du banantzeko harresi bat eraikitzearen eta israeldarren finkapen berri baten ondorioz.

Esta es la historia de un pequeño pueblo palestino que trata de salvar su territorio y que se enfrenta de una forma no violenta al Ejército israelí. Con el pretexto de razones de seguridad, Bil'in va a perder gran parte de sus tierras debido a la construcción del muro de separación y de un nuevo asentamiento israelí.

**• 22:30**



**Edgar** (2009). Fabian Busch. Alemania. 12 min.

Duela bi urte emaztea hil zitzaionetik, Edgar bakarrik egon da. Egun horretan, bere bizitzak zentzua galdu zuen. Orain, lana aurkitu behar duela erabaki du.

Desde que murió su mujer hace dos años, Edgar ha estado solo. Aquel día su vida se quedó sin sentido. Ahora decide que tiene que encontrar trabajo.

DK & EUROPA
SAN SEBASTIAN DONOSTIA 2016

## *Shock doktrina / La doctrina del shock*



**LA DOCTRINA DEL SHOCK** (*The Shock Doctrine*, 2009). Michael Winterbottom, Mat Whitecross. Britainia Handia. 78 min.

Naomi Kleinen izenburu bereko liburuan oinarritutako dokumentala da, eta "hondamendiaren kapitalismoa"ren gorakadaren azalpena ematen du: gobernuek eta enpresa handiek kinka larriak baliatzen dituzte herrialde ahulenen ekonomiak arpilatzeko. Filmak Chicagoko Unibertsitatean Milton Friedman muturreko teoriak hedatzen nola hasi zen aztertzen du, baita azken 40 urteotan herrialde eta egoera oso desberdinetan horiek izandako aplikazioa ere: Pinocheten Txilen, Yeltsinen Errusian, Thatcher-en Britainia Handian eta, oraindik orain, Afganistan eta Iraken inbasioetan.

Documental basado en el libro del mismo título de Naomi Klein, que explica el auge del "capitalismo del desastre": la explotación de momentos de crisis por parte de gobiernos y grandes empresas para saquear las economías de países vulnerables. La película rastrea el comienzo de la extensión de las teorías radicales de Milton Friedman en la Universidad de Chicago y su aplicación en los últimos 40 años en países y situaciones tan dispares como el Chile de Pinochet, la Rusia de Yeltsin, la Gran Bretaña de Thatcher y, más recientemente, las invasiones de Afganistán e Iraq.

DK & EUROPA
SAN SEBASTIAN DONOSTIA 2016

# ostirala / viernes
# apirilak 30 abril

## • 16:30

### *Terrorismoaren biktimak diren emakumeen prozesu emozionala / El proceso emocional de las mujeres víctimas del terrorismo*



TERRO-
RISMOA
ETA
BIKTIMAK

**MUJERES EN CONSTRUCCIÓN** (2009).
Begoña Atín, Maite Ibáñez. Espainia. 56 min.

**Mujeres en construcción**ek eraso terrorista baten biktima izandako hainbat emakumeren eraikuntza pertsonala islatzen du, haien sentimenduak eta balioak adieraztearen bidez. Ibilbide horretan, hainbat alderdiri erreparatzen zaio: asasinatzearen albistea, sinesgaiztasuna, zergatiaren bilaketa, amaren rola, pizgarrien, proiektuen, ilusioaren falta, sentitutako hutsa eta bakardadea eta, halaber, beldurra, amorrua eta ezintasuna.

**Mujeres en construción** refleja el proceso de reconstrucción personal de diversas mujeres que han sido víctimas de un atentado terrorista, a través de la expresión de sus sentimientos y valores. Un recorrido que toca aspectos tales como la noticia del asesinato, la incredulidad, la búsqueda de un porqué, el rol de madre, la falta de alicientes, de proyectos, de ilusión, el vacío y la soledad que sienten, y también el miedo, la rabia y la impotencia.

• **19:00**

## BUKAERA / CLAUSURA

***Estatu Batuetako herritar beltzen eskubideen aldeko borroka / La lucha por los derechos de la ciudadanía negra en Estados Unidos***



**SOUNDTRACK FOR A REVOLUTION** (2009). Bill Guttentag, Dan Sturman. Estatu Batuak. 83 min.

Estatu Batuetako eskubide zibilen aldeko mugimenduaren musika bidezko historia da. Protesta-abeslariek bileretan, piketeetan, kartzelageletan eta abarretan jotzen zituzten beren doinuak, haien borroka gorenean zegoenean. Abesti horien (John Legend, Joss Stone, Wyclef Jean edo The Rootsen ahotik) bertsio berrien, artxiboko materialaren eta eskubide zibilen aldeko borrokalariekin (adibidez, John Lewis kongresukidea, Harry Belafonte, Julian Bond edo Andrew Young enbaxadorea) egindako elkarrizketen bidez, filmak Estatu Batuen historiako etapa hori aztertzen du.

Esta es la historia del movimiento por los derechos civiles en los Estados Unidos a través de su música. Los cantantes protesta interpretaban sus temas en reuniones, piquetes, celdas… mientras su lucha estaba en su apogeo. Mediante nuevas versiones de estas canciones (interpretadas por artistas como John Legend, Joss Stone, Wyclef Jean o The Roots), material de archivo y entrevistas con luchadores por los derechos civiles como el congresista John Lewis, Harry Belafonte, Julian Bond o el embajador Andrew Young, el film explora esa etapa de la historia estadounidense.

caraaldea

## osteguna / jueves
## apirilak 29 abril

FILMA
**PELÍCULA**

• **19:00**

**C. C. Okendo K. E.**

***Ahaztutako frankismoaren biktimak argira ekarri / Desenterrar del olvido a las víctimas del franquismo***



**LOS CAMINOS DE LA MEMORIA** (2009).
José Luis Peñafuerte. Belgika-Espainia. 96 min.

**Los caminos de la memoria**en argudioak Espainian sakabanatutako hobi komunetako bat irekitzeari erreparatzen dio. Bertan, boluntarioek, erraildako talde baten hezurrak erabateko arretaz azaleratzen dituzte. Horien osaerak izugarrikeriaren marrazki bat uzten du agerian. Hezur-aztarnek hirurogeita hamar urtetan gelditutako sekuentzia irudikatzen dute. Gertaera horien erlojua berriz jartzen da martxan, eta memoria berreraiki egiten da. Biktimen seme-alabek hartzen dute hitza, eta isiltasunaren madarikazioa hausten.

**Los caminos de la memoria** centra su argumento en la exhumación de una de tantas fosas comunes diseminadas por España. En ella, los voluntarios desvelan con suma delicadeza los huesos de un grupo de asesinados. Su composición recuerda a un relieve del horror. Los restos óseos dibujan la secuencia detenida durante más de setenta años. El reloj de aquellos acontecimientos vuelve a ponerse en marcha, la memoria se reconstruye. Los hijos de las víctimas hablan y consiguen romper el maleficio del silencio.

## FILMA
## PELÍCULA

• **19:00**

**C. C. Okendo K. E.**

***Erbestea: "Ez naiz hemengoa, ezta hangoa ere"***
***Exilio: "No soy de aquí, ni soy de allá"***



LATINO-AMERIKA

**LA PÉRDIDA** (2009). Javier Angulo, Enrique Gabriel. Espainia-Argentina. 98 min.

**La pérdida** klase intelektual, akademiko eta zientifiko oso baten erbesteari buruzko hausnarketa da; izan ere, 60-70 urteetako indarkeria politikoaren ondorioz, Argentina utzi behar izan zuten. Pelikula Enrique Gabrielek –**En la puta calle** (1997) eta **Las huellas borradas** (1999)– eta Javier Angulok (Valladolideko Zinemaldiko zuzendari) zuzendu dute, eta harrerako herrialdeetan arrakastaz lan egiten duten hamabi argentinar erbesteraturi egindako elkarrizketen inguruan harilkatzen da. Zer izango litzateke Argentinaz egun belaunaldi adimentsu horrez gabetua izan ez balitz?

**La pérdida** es una reflexión en torno al exilio de toda una clase intelectual, científica y académica que, debido a la violencia política de los años 60-70, se vio forzada a abandonar la Argentina. La película, dirigida por Enrique Gabriel –**En la puta calle** (1997), **Las huellas borradas** (1999)– y Javier Angulo, director del Festival de Valladolid, se estructura en torno a entrevistas realizadas a una docena de exiliados argentinos que trabajan con éxito en sus países de acogida. ¿Qué sería la Argentina de hoy de no haberse visto desprovista de aquella brillante generación?

ERAKUSKETA
**EXPOSICION**

**C. C. Okendo K. E.**

*Ordutegia / Horario:*
10:00 – 14:00 / 16:30 – 20:00



**HILOTZAK HOBITIK ATERATZEN, DUINTASUNAK BERRESKURATZEN**
**EXHUMANDO FOSAS, RECUPERANDO DIGNIDADES**

Erakusketa honetan bildu du Aranzadi Zientzia Elkarteak 2000 urtetik aurrera Gerra Zibileko hobien inguruan egindako ikerketa-lana. Argazkien bitartez, hobitik ateratzeko prozesuaren alor zientifikoa eta giza alderdia erakusten dira, eta arreta berezia eskaini zaie desagertuen familiei.

La Sociedad de Ciencias Aranzadi recoge en esta exposición el trabajo que ha realizado en torno a la investigación de fosas de la Guerra Civil desde el año 2000. A través de fotografías, presenta tanto la faceta científica como humana del proceso de exhumación, dedicando una especial atención a las familias de las personas desaparecidas.

HITZALDIA
**CONFERENCIA**

• **19:00**

**C. C. Okendo K. E.**

## MEMORIA HISTORIKOA BERRESKURATZEN
## RECUPERANDO LA MEMORIA HISTÓRICA

Francisco Etxeberriak, auzitegiko mediku eta UPV/EHUko irakasle, hitzaldia emango du azken hamar urtean Aranzadi Zientzia Elkarteak hobi komunen inguruko ikerlanei eta horiek irekitzeari buruz. Etxeberria Elkarte horretako presidentea da.

Francisco Etxeberria, forense y profesor de la UPV/EHU, ofrecerá una conferencia sobre los trabajos  de investigación y apertura de fosas comunes realizados en estos últimos diez años por la Sociedad de Ciencias Aranzadi, de la que es presidente.

# ERAKUSKETAK
# EXPOSICIONES

**Plaza Okendo**



## ERLIJIOEN MENDEA
## EL SIGLO DE LAS RELIGIONES

Kanpoko erakusketa honetan, mundu osoan sakabanatutako Reuters Agentziako argazkilariek konfesio nagusi eta askotariko sinismenetako erlijio-ekitaldiei buruzko irudien sorta bat erakutsiko digute. Jainkoak, testu sakratuak eta erritualak elkarrekin partekatzen duten egia batean nahasten dira: heriotza fisikoaren ondoko bizitza espirituala.

En esta exposición exterior, fotógrafos/as de la Agencia Reuters repartidos/as por todo el mundo muestran un mosaico de imágenes sobre los acontecimientos religiosos de las principales confesiones y las creencias más dispares. Dioses, textos sagrados y rituales se entremezclan en una certeza compartida: la vida espiritual posterior a la muerte física.

**Udal Liburutegi Nagusia / Biblioteca Central (Alderdi Eder)**

*Ordutegia / Horario:*
astelehenetik ostiralera / de lunes a viernes:
10:00 – 20:30
larunbatak / sábados:
10:00 – 14:00 / 16:30 – 20:00



## GIPUZKOA 1936-1950: KRONIKA BELTZEAN (ETA ZURIAN)
## GIPUZKOA 1936-1950: CRÓNICA EN NEGRO (Y BLANCO)

Gipuzkoan gerra zibilean eta gerraren ondoren ateratako irudiek, oro har, tropa irabazleen triunfalismoa erakusten dute, eta baita gizartearen zati batena ere, Francoren erregimenaren aurreneko urteetan ondo bizi zen jendearena. 1936-1950 bitartean ateratako argazki erakusketa honek beste alderdi hori erakutsi nahi du, alderdi ilun eta ezezagun hori, batere nahi izan ez arren Gipuzkoaren etorkizuna latz markatu zuen aldi historiko baten protagonista izan zen milaka pertsonarena.

Las imágenes de la Guerra Civil y de la posguerra en Gipuzkoa muestran en general el triunfalismo de las tropas vencedoras y el reflejo de una parte de la sociedad que vivía cómodamente durante los primeros años del régimen franquista. Esta exposición de fotografías obtenidas durante el periodo 1936-1950 quiere mostrar la otra cara más oscura y desconocida, la de miles de protagonistas involuntarios/as de un episodio histórico que marcaría tristemente el futuro de Gipuzkoa.

**C. C. Ernest Lluch K. E.**

*Ordutegia / Horario:*
astelehenetik ostiralera / de lunes a viernes:
16:00 – 21:30
larunbatak / sábados: 17:00 – 21:00



**EGUN BAT EDO BI / UN DÍA O DOS**
**Deborah Metsch**

Deborah Metsch artistak egunkari intimo bat erakutsiko digu Mendebaldeko Afrika, Florida, Maurizio Uharte eta Bahametako parajeetatik egindako bidaietan hartutako argazkien aukeraketa baten bidez.

“*Asko mugitu naiz, hemendik hara, maiz nire gizonarekin eta alabarekin. Paraje berriak atera nahi nituen argazkiz, aparteko uharteak, jende eta paisaia desberdinak. Bitxia da, irudi guztiak antzekoak dira, oso gutxi axola du tokia, nik biren arteko unea kontatzen dut, nire argazkien erdiko marra beltzekoa bezala*”. (Deborah Metsch)

La artista Deborah Metsch nos muestra un diario íntimo a través de una selección de fotografías tomadas durante un viaje por parajes de África Occidental, Florida, Isla Mauricio y las Bahamas.

“*Me he movido mucho, aquí y allá, a menudo con mi hombre y mi hija. Deseaba fotografiar nuevos parajes, islas apartadas, gentes y paisajes diferentes. Es extraño, todas las imágenes se parecen, importa muy poco el lugar, yo narro un momento entre dos, como el de la raya negra en medio de mis fotos*”. (Deborah Metsch)

**Cines PRÍNCIPE**

*Ordutegia / Horario:*
16:30 – 22:30



## NIGERIA: LUR KUTSATUA, LURRA SUTAN
## NIGERIA: TIERRA CONTAMINADA, TIERRA QUE ARDE

Amnesty Internationalek ondu du argazki-erakusketa hau. Bertan, Shell petrolio-konpainia Niger ibaiaren deltan eragiten ari den ondorio hondagarriak salatzen da, Afrikako ingurune horretako biztanleen eta ingurumenaren kaltetan. Kutsadura-maila altua, praktika gaiztoak eta petrolio-enpresen ez-egitea, Gobernuaren utzikeria larria eta talde armatuen ekintzak dimentsio askotako krisi gero eta handiagoa eragiten ari dira Nigerreko deltan.

Amnistía Internacional produce esta exposición fotográfica en la que denuncia los efectos devastadores que está causando la compañía petrolera Shell en el delta del río Níger y que afectan negativamente a la población y al medio ambiente de esta zona de África. El alto grado de contaminación, las malas prácticas e inacción de las empresas petrolíferas, el grave abandono por parte del Gobierno y la actuación de los grupos armados están propiciando una creciente crisis pluridimensional en el delta del Níger.

**La Colchonería**
**(c/San Vicente)**

*Ordutegia / Horario:*
asteartetik igandera / de martes a domingo:
17:00 – 00:00




## VINDICACIÓN FEMINISTA

*"Espainian feminismoa hasi zenean, Lidia Falconekin izandako gutun-truke bizi batean (Yeseriasen kartzelatuta zegoela, Madrilgo Correos kaleko eraso urruna bidegabe berari leporatuta), emakumeentzat soilik egokia zen* ***Vindicación*** *deitutako aldizkari feminista honen egitasmoa itxuratzen hasi ginen. Gure gutun-elkartruke luzean hitza asmatu genuen* (vindicación), *kulturaz hain gabetutako herrialde honetan lehenago erabili gabeko hitza*".

*(Carmen Alcalde)*

*"En una intensa correspondencia, en el inicio del feminismo en España, con Lidia Falcón (ella encarcelada en Yeserías, imputada injustamente por el lejano atentado de ETA en la calle Correos de Madrid),comenzamos a pergeñar el proyecto de esta revista feminista y sólo apta para mujeres, llamada* ***Vindicación****. En nuestro largo epistolario supimos inventar esta palabra –vindicación– nunca antes utilizada en este país tan paupérrimo de cultura*".

*(Carmen Alcalde)*

## FNAC

*Ordutegia / Horario:*
astelehenetik larunbatera / de lunes a sábado:
10:00 – 22:00



### PRESTES MAIA 911 ERAIKINEKO LEIHO BATETIK DESDE UNA VENTANA DEL EDIFICIO PRESTES MAIA 911
**Julio Bittencourt**

São Pauloko bihotzean kokatutako ardatz nagusietakoa den Prestes Maia etorbideko 911, MSTCk (Movimento Sem do Teto Centrok) okupatutako bi blokeko eraikin erraldoia da. Errauts koloreko bi bloke dira eta aspaldi batean Latin Amerikako abangoardiakoenen artean zegoen eraikintzat jo zuten; 360 leiho baino gehiago dauzka eta 460tik gora familia bizi izan dira bertan 2002ko azaroaren 3tik. Agintariekin izandako hainbat negoziazioren ondoren, azkenean Prestes Maiako 911 zenbakia 2007an hustu zuten. Brasildar argazkilari Julio Bittencourtek (1980) higiezin honen ia bost urteko okupazioko biztanleen erretratu batzuk biltzen ditu argazki hauetan.

El 911 de la avenida Prestes Maia, una de las mayores arterias situadas en el corazón de São Paulo, es un edificio gigante de dos bloques ocupado por el MSTC (Movimento Sem Teto do Centro). Dos bloques color ceniza, antaño considerados los edificios más vanguardistas de América Latina, con más de 360 ventanas y donde más de 460 familias han estado viviendo desde el 3 de noviembre de 2002. Tras diversas negociaciones con las autoridades, finalmente el número 911 de Prestes Maia fue desalojado en 2007. El fotógrafo brasileño Julio Bittencourt (1980) recoge en estas fotografías retratos de algunos de los habitantes de este inmueble durante los casi cinco años de ocupación.

**Zinemaldiaren Informazio Bulegoa / Oficina de Información del Festival Victoria Eugenia Antzokia (Plaza Okendo)**

*Ordutegia / Horario:*
10:00 – 14:00 / 16:00 – 20:00



## BAKEAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO IPUINAK ETA MARGOLANAK CUENTOS Y PINTURA PARA LA PAZ Y LOS DERECHOS HUMANOS

Donostiako VI. **Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Ipuinak eta Margolanak** haur- eta gazte-lehiaketan parte hartu duten haur eta gazteek egindako ipuin eta marrazkien erakusketa da. Igandean, apirilak 25ean, sariak banatuko dira Victoria Eugenia Antzokian ospatzekoa den festa berezi batean.

Exposición de los cuentos y dibujos realizados por los niños/niñas y jóvenes que han participado en la VI edición del concurso infantil y juvenil San Sebastián, **Cuentos y Pintura para la Paz y los Derechos Humanos**. El domingo 25 de abril se realizará la entrega de premios en una fiesta especial que se celebrará en el Teatro Victoria Eugenia.

MUSIKA
**MÚSICA**

• **23:00**

**Gazteszena (C. C. Egia K. E.)**

## BUKAERA FESTA / FIESTA DE CLAUSURA

### SOUL SUPREME





Luis Beltzak eta Alex Ubiñasek osatzen dute **Soul Supreme**, soilik eta esklusiban *soul* musikako doinuak eskaintzen dituen taldea. Luis Beltzaren ibilbideak Beltza Records du abiapuntu, hirurogeiko hamarkadatik gaurdainoko hainbat musika-generotan espezializatutako Donostiako denda bat; bertan, afrikar-amerikar musikaren alderdi guztiak lehenesten dituzte (soul-jazz-latino-Brasil). Bere aldetik, Alex Ubiñasek bildumagile eta entzuletzat jotzen du bere burua "*zentzua izan dudanetik*". Bere DJ lanetan, soul dantzagarri, jazz-funk eta disko-musika doinuen aldeko hautua egiten du.

Luis Beltza y Álex Ubiñas integran **Soul Supreme**, una formación dedicada única y exclusivamente a ofrecer temas pertenecientes a la música *soul*. La trayectoria de Luis Beltza se centra en Beltza Records, un establecimiento de Donostia especializado en distintos géneros musicales, desde los años sesenta hasta la actualidad, con especial prioridad a la música afro-americana en todas sus vertientes (soul-jazz-latino-Brasil). Por su parte, Álex Ubiñas se define como aficionado a escuchar y coleccionar "*desde que tengo uso de razón*". En sus actuaciones como DJ se decanta por temas de *soul* bailable, jazz-funk y música disco.



WANDA VISIÓN
Presenta
Seminci - VALLADOLID 2009
MEJOR PELÍCULA - ESPIGA DE ORO
HONEYMOONS
Una película de Goran Paskaljevic
Nebojša MILOVANOVIĆ • Jelena TRKULJA • Jozef SHIROKA • Mirela NASKA • Bujar LAKO • Yllka MUJO • Lazar RISTOVSKI • Petar BOŽOVIĆ
Una producción de NOVA FILM • SKA-NDAL PRODUCTIONS • BEOGRAD FILM
Escrita por: Goran Paskaljevic y Genc Permeti • Director de fotografia: Milan Spasic • Diseño de produccion: Željko Antovic, Durim Neziri
Diseñador de sonido: Velibor Hajdukovic y Branko Neškov • Diseñador de vestuario: Lana Pavlovic • Supervisora de maquillaje: Martina Šubic Dodocic
Montaje: Petar Putnikovic y Kristina Poženel • Montaje de sonido: Nebojša Zoric • Director de producción: Milan Cvetkovic
Ayudante de dirección: Zoran Andric • Coproductores: Goran Paskaljevic, Ilir Butka, Nikola Đivanovic
Director: Goran Paskaljevic
Telekom Srbija
cameo
www.wanda.es

**Antolatzaileak / Organizadores**

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Giza Eskubideen Saila
Área de Derechos Humanos

donostiakultura.com
San Sebastián, ciudad de la cultura

**Babesleak / Patrocinadores**

Ministerio de Asuntos Exteriores y de Cooperación
aecid

VICT 2008
Con el apoyo financiero del programa VICT
Comisión Europea - Dirección General Justicia, Libertad y Seguridad

**Parte-hartzaileak / Participantes**

unicef
UNHCR ACNUR
La Agencia de la ONU para los Refugiados
euskal batzordea
CEAR
LA ASOCIACIÓN INTERNACIONAL DE EDUCADORES PARA LA PAZ
+tu
ACADEMIA MEXICANA DERECHOS HUMANOS
XXV Años de Derechos Humanos en México
1984-2009
AMNESTY INTERNATIONAL
SOS RACISMO SOS ARRAZAKERIA
CUDHM
Cátedra Unesco de Derechos Humanos
UNAM - México

**Laguntzaileak / Colaboradores**

eitb
euskararen donostia patronatua
fnac
www.fnac.es
Herri Irratia
Donostia 1224 Om/94.8 Fm
Loiola 99.8 Fm
www.herri-irratia.com
SER Radio San Sebastián
Garbera

**www.cineyderechoshumanos.com**

5.000 ale / ejemplares 1.05 € ale bakoitza / unidad